

Koiuntura di-da batean

2018ko iraila

Aurkibidea

1. Hazkundera
2. Afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. Kanpo merkataritza
6. Ekonomia ingurunea

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan.

Hala industriak nola zerbitzuek hazkunde erritmoa leundu zuten.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,9 areagotu zen abuztuan.

Eraikuntzak lortu ditu urte arteko gehikuntza tasa handienak.

3. Langabeziak beheranzko joerari eutsi dio.

Kolektibo guztiek, gazteenak izan ezik, urte arteko jaitsiera bizia jaso zuten.

4. Uztaileko KPI indizea %2,3an mantendu zen.

Elikagai freskoen merkatzeak argindarraren garestitzea konpentsatu zuen.

5. EAEko esportazioak inoizko altuenak izan ziren lehen seihilekoan.

Alemania da atzerrian eginiko salmenten helburu nagusia.

6. Bilakaera kontrajarriak ekonomia eremu nagusietan.

AEBek hazkundera bizkortu dute Europarena galgatu den bitartean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDE AURRERAPENA

EAEko ekonomia %2,8 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan

Barne produktu gordinaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek aurtengo bigarren hiruhilekoaren kontu ekonomikoen aurrerapena argitaratu du. Estatistika horren arabera, EAEko barne produktu gordina %2,8 handitu zen urte arteko terminoetan. Tasa hori lehen hiruhilekoan lortu zen balio bikainetik hiru hamarren beherago dago. Moteltze hori aurreikusita zegoen Eusko Jaurlaritzaren taula makroekonomikoan, baina apaltzea espero zena baino zertxobait biziagoa izan da. Hain zuzen ere, aurreikuspenak %2,9an kokatu zuen bigarren hiruhilekoaren gehikuntza. Hala eta guztiz ere, EAEko ekonomia-aren aldakuntza tasa oraindik bizia da. Hiruhileko arteko terminoetan, bigarren hiruhilekoak %0,6ko tasa jaso zuen, lehenengoak baino bi hamarren gutxiago.

Barne produktu gordinaren bilakaera


Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enpleguaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzaren ikuspegiak hiru sektore nagusiek bizi duten une gozoa baieztatzen du. Halere, kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du industriaren eta zerbitzuen hazkunde erritmoa lehen hiruhilekoko baino zertxobait motelagoa izan zela.

BPGaren apaltzea ez da osorik igaro enpleguaren alorrera, bigarren hiruhilekoan %2,1 hobetu baitzen, Eustaten estatistika horrek seinatu duenez. Lehen hiruhilekoko emaitza baino hamarren bat txikiagoa izan arren, tasa hori eta aurreko sei hiruhilekoetan eskuratutakoak oso antzekoak dira. Beraz, enplegua sortzeko orduan egonkortasunak jarraitzen du. Azken urtebetean, EAEko ekonomiari 19.500 lanpostu garbi inguru erantsi dizkio. Kasu horretan, lortutako hazkunde tasak hamarren batean gainditu du Eusko Jaurlaritzak epealdi horretarako aurreikusi zuena (%2,0).

Enpleguaren bilakaera

Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,9 areagotu zen abuztuan

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzak argitaratu duen informazioak adierazten du 2018ko abuztuan afiliatuta zeuden lagunen kopurua aurreko urtean zegoena baino %1,9 handiagoa zela. Beraz, 2015etik, gorabehera txiki batzuekin, etengabe eskuratu den %2,0aren inguruko erritmoari eutsi dio. Generoaren arabera, afiliazioaren gehikuntza antzekoa izan da, gizonen aldakuntza %1,8 izan zelako eta emakumeena, berriz, %1,9. Beste aldetik, hileko horretan afiliatuta zeuden 936.000 pertsonetatik, 433.000 emakumeak ziren, guztizkoaren %46 delarik. Porzentaje hori ia ez da aldatu azken bost urtekoan, baina gehieneko balioa (%47) 2017ko azken hilekoetan eta 2018ko lehenengoetan eskuratu zen, nahiz eta udako hilekoetan ez zaion eutsi tasa horri.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreka eginiko analisiak eraikuntzaren une gozoa baieztatzen du, abuztuan %3,9ko urte arteko gehikuntza tasa eskuratu zuelako, aurreko bi datuetatik oso hurbil. Beste aldetik, bai industriak bai zerbitzuen alorrak %1,9ko balioa jaso zuten, lehen kasuan aurreko hilekoekiko bilakaera egonkorra erakutsiz eta bigarrean moteltzeko joera leuna marraztuz. Jarduera adarren arabera, igoera txikiagoak lortu dira bai merkataritzan (%0,5) bai ostalaritzan (%1,3). Aitzitik, hezkuntzak (%4,5) eta osasun arloko jarduerak (%2,9), beste batzuen artean, oso igoera esanguratsuak lortu zituzten berriro.


Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak

	2017ko abuztua	2018ko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	919.073	936.334	17.261
Industria manufakturagileak	172.471	175.697	3.225
Merkataritza	138.804	139.454	650
Osasun arloko jarduerak	95.286	98.068	2.781
Administrazio jarduerak	65.113	66.586	1.473
Hezkuntza	58.758	61.400	2.642
Ostalaritza	60.345	61.125	780
Eraikuntza	53.199	55.274	2.075
Lanbide jarduerak	52.965	54.361	1.397
Administrazio publikoa	46.345	47.044	699
Garraioa	40.324	41.682	1.358
Etxeko langileak	30.902	30.562	-340
Bestelako zerbitzuak	26.581	26.401	-180
Informazioa eta komunikazioa	21.413	22.229	816
Finantza jarduerak	18.194	18.085	-108
Jarduera artistikoak	13.539	14.079	540
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.514	12.755	241
Ur horniketa	6.048	6.280	232
Higiezin jarduerak	3.868	3.991	123
Energia horniketa	1.794	1.780	-14
Erauketa industriak	566	565	-1
Lurralde kanpoko erakundeak	44	52	7

LANGABEZIA LANBIDEKO BULEGOETAN


Langabeziak beheranzko joerari eutsi dio

Langabezia erregistratua guztira
Urte arteko aldakuntza tasa





Lanbideko bulegoetan jasotako datuen arabera, abuztuan langabezia %7,2 murriztu zen aurreko urteko hileko beraren aldean. Tasa horrek esan nahi du 10.000 langabe inguru gutxiago daudela une hauetan duela urtebete bat baino. Beraz, beheranzko joera egiaztatu da berriro. Hala eta guztiz ere, langabeziaren jaitsiera erritmoa zertxobait moteldu da. Berriro ere, gizonen kolektiboak eskuratu zituen jaitsiera handienak, urte arteko aldakuntza tasak %-10aren inguruan kokatu zirelako. Aitzitik, emakume langabeen aldakuntza tasa gutxi gorabehera erdian (%-5,1) geratu zen, lan merkatuan gero eta gehiago parte hartzeko joerak bere horretan jarraitzen duelako.

Langabezia erregistratua. Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gazteak
 Urte arteko aldakuntza tasak

Langabezia erregistratua. Atzerritarrak
 Urte arteko aldakuntza tasak


Gainontzeko kolektiboetatik aldentuta, langabezia areagotu zen gazteen artean (%4,0). Dagoeneko hiru hileko jarraian, talde horrek aldakuntza tasa positiboak eskuratu ditu. Hala ere, gazteak salbuespena izan ziren kolektiboen artean, zeren eta gainontzeko guztiek beherakada esanguratsuak lortu baitzituzten berriro. Haietako bat langabe atzerritarrena da, hemengo herritartasuna dutenena baino are gehiago (%-9,0) jaitsi zelako. Orobat, portaera on hori jarduera sektore guztietara hedatu zen, batez ere eraikuntzara (%-16,6). Sektore horrek berriro gainditu zituen, alde handiz gainera, industriaren (%-10,4) eta zerbitzuen (%-6,3) jaitsiera tasak.

Langabeak


	2017ko abuztua	2018ko abuztua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	133.210	123.606	-9.604
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	21.716	20.041	-1.675
Bizkaia	76.374	71.376	-4.998
Gipuzkoa	35.120	32.189	-2.931
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	58.371	52.613	-5.758
Emakumeak	74.839	70.993	-3.846
25 urtetik beherakoak	7.263	7.554	291
25 urte baino gehiago dutenak	125.947	116.052	-9.895
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.842	2.626	-216
Industria	16.343	14.641	-1.702
Erakuntza	11.262	9.392	-1.870
Zerbitzuak	88.037	82.526	-5.511
Lehenago lan egin dutenak	118.484	109.185	-9.299
Lehenago lan egin ez dutenak	14.726	14.421	-305
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	20.223	18.412	-1.811

INFLAZIOA

Uztaileko KPI indizea %2,3an mantendu zen

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa



Argindarraren salneurria nabarmen garestitu den arren, uztaileko inflazioak aurreko hilekoan jasotako tasari eutsi zion, elikagai freskoen moteltzeari esker, aipatu den osagaiaren igoera konpentsatu baitzuten. Argindarraren prezioa %7,6ra arte bizkortu zen, urteko maximoa baita, elektratresna batzuen kontsumoa, hala nola aire girotuarena, handitu zelako, temperatura altuen ondorioz.


KPIaren banaketa

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko uztaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	2,3	2,3
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,0	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,6	0,7
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	8,0	1,5
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	4,0	0,3
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	11,1	1,2


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak




Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



KPI erregairik gabe

Urte arteko aldakuntza tasa



Dagoeneko aipatu den argindarraren garestitzeaz gain, gas naturalak eta berogailuetarako gasolioak ere urte arteko igoerak ezagutu zituzten. Horren ondorioz, etxebizitza taldeak (%4,3) indize orokorraren igoerari ekarpen handiena eman zion, ekaineko tasa puntu bat eta lau hamarren igo zelako. Hala ere, talde inflaziogileena garraioa izan zen berriro (%5,8), eta erregaiek oraindik goranzko presioa egin zuten arren, hamarren bat gutxitu zuen bere aldakuntza tasa aurreko hilekoaren aldean, aireko tarifak jaitsi zirelako. Aitzitik, elikagaien tasa sei hamarrenetan gutxitu zen, elikagai freskoen bilakaeraren ondorioz. Halaber, aisia eta kultura biltzen dituen taldeak puntu bat eta hamarren bat murriztu zuen bere tasa, batez ere pakete turistikoaren salneurria gutxiago hazi zelako.

KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko uztaila


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,3	2,2	2,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,0	1,8	2,0
Edari alkoholduak eta tabakoa	2,8	2,1	4,5
Jantziak eta oinetakoak	1,3	1,0	0,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiek	4,3	3,7	2,8
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,8	0,3	0,3
Medikuntza	-0,2	0,1	0,8
Garraioa	5,8	5,9	4,6
Komunikazioak	2,8	2,7	-0,6
Aisia eta kultura	-0,6	-0,6	0,9
Hezkuntza	1,0	0,8	-2,0
Jatetxeak eta hotelak	1,7	2,0	2,2
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,0	0,9	1,3

KANPO MERKATARITZA

EAEko esportazioak inoizko altuenak izan ziren lehen sei hilekoan

Atzerriko esportazio guztien bilakaera


Urte bakoitzeko lehenengo sei hilekoa. Milioi euroak



Atzerriarekiko kanpo merkataritzaren datuek oso emaitza positiboa eskaini dute 2018ko lehen sei hilekoan. Hain zuzen ere, EAEko esportazio guztien balioak 12.949 milioi euroko langa gairitu zuten, aurrekaririk gabeko zenbakia baita. Zifra hori aurreko urteko epe berean lortutakoa baino %8,4 handiagoa da. Beste aldetik, inportazioen kopurua 9.940 milioi eurora iritsi zen. Kopuru hori 2008ko lehen sei hilekoan bakarrik gairitu zen, garai hartan 10.753 milioi euro inportatu zirelako. Mugimendu horien ondorioz, EAEko kanpo merkataritzak 3.009 milioi euroko saldoa utzi zuen, aurreko urteko lehen sei hilekoetan eskuratutakoa baino 465,1 milioi euro gehiago direlarik.


Inportazioak guztira

Lehen sei hilekoa. Milioi euroak




Saldoa guztira

Lehen sei hilekoa. Milioi euroak




Merkataritza saldoaren hobekuntza esportazioaren egituraren bi multzo nagusietan oinarritu zen: energiaren atalean eta energiak bestelakoan. Azken hori 324 milioi eurotan igo zen 2017an lortutako kopuruaren aldean eta 2013an jaso zuen maximora hurbildu zen. Esportazioen une positiboa azaltzeko adierazi behar da metal arrunten salmenta 3.047 milioi eurotik gorakoa izan zela eta ekipamendurako ondasunena, berriz, 6.233 milioi eurokoa. Bi kasuetan, inoizko zenbakirik gorenak lortu dira.

Energiak bestelako saldoa
Lehen sei hilekoa. Milioi euro.




Saldo energetikoa
Lehen sei hilekoa. Milioi euro.



Beste aldetik, energiako saldoa, negatiboa izaten baita normalean, zertxobait gutxitu zen 2018ko lehen sei hilekoan, petrolioaren salneurria nazioarteko merkatuetan garestitze garrantzitsua izan zuen arren. Saldo hori hobetu bazen ere, EAEko eragileen mendekotasun energetikoa oraindik oso handia da. Hain zuzen ere, EAEko enpresek atzerriatik inportatzen duten guztiaren ia %30 energiako produktuak dira.

Esportazioen helburuari dagokionez, EB15 izan zen berriro EAEko eragileen bezero nagusia, saldu zen guztizkoaren %58,3 hara joan baitzen. Alemania izan zen herrialde hartzaile behinena. Hain zuzen ere, herrialde hartan saldutakoa %9,1 handitu zen. Ondoren, Frantzia agertzen da, non esportazioak %6,1 areagotu baitziren. Bi herrialde horiek ibilgailu automobilak eta metal arruntak erosten dituzte bereziki. Esportazioen hirugarren helburua AEBak dira, bertan %30,4ko igoera harrigarria eskuratu zen. Neurri batean, makinak eta tresnen salmentak azaltzen du igoera hori.

Esportazio guztiak. Banaketa
Lehen sei hilekoa. Ehunekoak




INGURUNeko HAZKUNDEA

Bilakaera kontrajarriak ekonomia eremu nagusietan

Txinako BPGa


Urte arteko aldakuntza tasak



Txina %6,7 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan. Tasa hori aurreko bederatzai hilekoetan eskuratutakoa baino zertxobait apalagoa da. Moteltze arin horren atzean, esportazioen bultzada txikiagoa dago, nahiz eta AEBekin duen arantzel gerra ez zen uztaila arte hasi, eta baita kredituaren garestitzea ere, inbertsioa eta industria ekoizpena lastatu baititu. Hala ere, munduko bigarren ekonomia oraindik oso portaera egonkorra erakusten ari da.


Manufakturen PMI indizea. Txina

Urte arteko aldakuntza tasak



Txinako esportazioak.

Urte arteko aldakuntza tasak




AEBetan, lan merkatua enplegu beteko egoeran dago, bertako langabezia tasa bigarren hiruhilekoan %3,9an zegoelako. Orobat, soldatek gora egin dute eta konfiantza berreskuratu da. Aurreko guztiak kontsumo pribatuaren beste gehikuntza bat ekarri zuen. Halaber, esportazioak sendo hazi ziren, Txinara doazen soja bidalketak aurreratatu zirelako, nekazaritzako produktuen gaineko arantzela indarrean sartu baino lehen. Azkenik, gastu publikoa ere handitu zen. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia estatubatuarra %2,9 hazi zen 2018ko bigarren hiruhilekoan, azken hiru urteko emaitzarik onena baita.

AEBetako taula makroekonomikoa


	2017	2017 II	2017 III	2017 IV	2018 I	2018 II
BPG	2,2	2,1	2,3	2,5	2,6	2,9
Kontsumo pribatua	2,5	2,5	2,4	2,7	2,4	2,6
Inbertsio pribatu gordina	4,8	4,5	6,8	5,0	6,2	4,8
Kontsumo eta inbertsio publikoak	-0,1	0,1	-0,4	0,1	0,7	1,3
Esportazioak	3,0	2,7	2,1	4,7	4,3	5,7
Inportazioak	4,6	4,6	4,1	5,4	5,0	4,2

Iturria: BEA, Txinako Estatistika Erakundea eta Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta Mineco.

Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Erresuma Batuko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eurostat .

Txanponaren ifrentzua Europar Batasunak eskaini zuen. Eurostatek bigarren hiruhilekorako zenbatetsi due-
nez, BPGa hirugarren hiruhilekoz jarraian moteldu zen. Zehazkiago adierazita, kontinente zaharra %2,2 hazi
zen, 2017ko lehen hiruhilekotik izan duen gorakadarik txikiena baita. Bizitasun txikiago hori ekonomia nagu-
sietara hedatu zen. Izan ere, ekonomia jarduera %1,9 areagotu zen Alemanian, lehen hiruhilekoan lortutako
%2,0aren aldean. Frantziak, berriz, lau hamarren galdu zituen eta %2,1 hazi zen. Azkenik, Italiak bi hamarren-
netan murriztu zuen bere tasa, %1,2ra arte. Salbuespena Erresuma Batua izan da. Hiru hiruhilekoz etenga-
beko moteltzea pairatu ondoren, non ematen baitzuen Brexita ondorio kaltegarriak izaten hasia zela, zertxo-
bait suspertu zen, %1,3 arte.

Espainiar ekonomiak erritmo onean hazten jarraitu zuen, baina lehen aldiz hiru urteko epean %3,0 baino gutxiago hazi zen. Kon-
tsumo pribatuaren bultzada txikiagoa inber-
tsio handiagoak konpentsatu zuen, bereziki makinerian eginikoak. Horri esker, barne eskariak 2,9 puntu ekarri zizkion hazkun-
deari. Kanpo arloak, berriz, bi hamarren kendu zizkion jarduerari. Beraz, BPGa %2,7 hazi zen. Enplegua %2,5 areagotu zen, au-
rreko emaitza baino hamarren bat gutxiago. Dena dela, lanaldi osoko 448.000 lanpostu garbi sortu ziren.

Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE .

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
BPG	3,1	2,9	2,9	3,0	3,0	3,1	2,8
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,0	3,0	2,8	2,9	—
Administrazioaren kontsumoa	2,3	2,4	1,2	2,7	2,9	2,6	—
Kapital eraketa gordina	3,1	3,5	3,2	3,9	3,8	3,7	—
Barne eskaria	3,0	3,0	2,7	3,1	3,1	3,0	—
Esportazioak	1,7	3,0	1,9	3,7	4,8	6,5	—
Inportazioak	1,5	3,1	1,8	3,9	4,8	6,2	—
Lehen arloa	2,0	-3,0	-1,9	-1,9	-11,9	-5,6	—
Industria	2,9	2,7	2,3	2,7	3,7	3,7	—
Eraikuntza	1,8	2,5	1,9	3,0	3,1	2,7	—
Zerbitzuak	2,8	3,1	3,2	3,1	2,9	3,1	—
Balio erantsi gordina	2,7	2,9	2,9	3,0	3,0	3,1	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	3,0	2,4	3,0	3,2	3,1	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko maiatza

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018			2018	2019
	II	III	IV		
BPG	2,9	2,7	2,6	2,8	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,7	2,4	2,3	2,6	2,1
Familien kontsumoa	2,8	2,5	2,4	2,7	2,1
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,0	2,0	2,2	1,8
Kapital eraketa gordina	3,5	3,5	3,3	3,5	2,9
Barne eskariaren ekarpena	3,0	2,8	2,7	2,9	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-4,4	-8,7	-8,0	-6,7	-4,6
Industria	3,3	3,1	2,8	3,3	2,3
Eraikuntza	2,4	2,2	2,0	2,3	1,8
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,8	2,9	2,4
Balio erantsi gordina	2,9	2,7	2,7	2,8	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,6	2,4	2,3	2,6	2,0
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,9	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
BBVA	3,1	2,8	Confebask	2,9	—
Funcas	3,1	—	CEPREDE	2,7	2,3
Laboral kutxa	3,0	2,5	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,4	—

Iturria: CEPREDE (2018ko uztaila), BBVA (2018ko maiatza), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko uztaila), Funcas (2018ko maiatza) eta Hispalink (2018ko maiatza).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
BPG	3,3	3,1	3,1	3,1	3,1	3,0	2,7
Kontsumo pribatua	2,9	2,4	2,4	2,4	2,5	2,8	2,2
Kontsumo publikoa	0,8	1,6	1,5	1,4	2,4	1,9	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	5,0	3,9	5,6	5,6	3,5	5,6
- Aktibo finko materialak	3,4	5,2	4,1	5,7	6,0	3,7	6,0
- Eraikuntzan	2,4	4,6	4,3	5,1	4,8	4,7	4,8
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	6,1	3,9	6,6	7,7	2,2	7,7
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	3,7	2,9	5,0	3,3	2,9	3,5
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	2,8	2,5	3,0	3,2	2,8	2,9
Esportazioak	4,8	5,0	4,5	5,6	4,4	3,2	1,2
Inportazioak	2,7	4,7	3,1	5,9	5,2	2,8	2,1

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,9	2,4	Intermoney	2,8	2,4
Axesor	2,9	2,6	Repsol	2,6	2,4
BBVA	2,9	2,5	Santander	2,9	2,4
Bankia	2,9	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,8	2,3
CaixaBank	2,8	2,4	BATEZ BESTE	2,8	2,4
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2018-04)	2,7	2,4
CEEM-URJC	2,7	2,4	Espainiako Bankua (2018-06)	2,7	2,4
CEPREDE-UAM	2,7	2,3	Europar Batzordea (2018-05)	2,9	2,4
CEOE	2,8	2,6	NDF (2018-04)	2,8	2,2
FUNCAS	2,8	2,4	ELGE (2018-05)	2,8	2,4
ICAE-UCM	2,7	2,4	The Economist (2018-08)	2,7	2,2
IEE	2,8	2,3	Consensus Forecast (2018-07)	2,8	2,3

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madrid; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017			2018	
			II	III	IV	I	II
AEB	1,5	2,3	2,1	2,3	2,5	2,6	2,9
Txina	6,7	6,9	6,9	6,8	6,8	6,8	6,7
Japonia	0,9	1,7	1,6	2,0	2,0	1,1	1,0
Kanada	1,4	3,0	3,8	3,1	3,0	2,3	1,9
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,5	2,8	2,6	2,4	2,2
Eurogunea	1,9	2,2	2,5	2,8	2,8	2,5	2,2
Alemania	1,9	2,2	2,2	2,7	2,8	2,0	1,9
Frantzia	1,2	1,8	2,3	2,7	2,8	2,1	1,7
Erresuma Batua	1,9	1,8	1,8	1,7	1,3	1,2	1,3
Italia	0,9	1,5	1,6	1,7	1,6	1,4	1,2
Herbehereak	2,2	3,2	3,3	2,9	3,1	3,1	2,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko uztaila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,9	2,6	2,5	2,2	3,9	3,5
Japonia	1,1	1,1	1,0	1,1	2,5	2,4
Kanada	2,0	1,9	2,3	2,0	5,8	5,8
Europar Batasuna	2,1	1,8	1,8	1,7	—	—
Eurogunea	2,2	1,8	1,7	1,6	8,3	7,9
Alemania	2,0	1,7	1,9	1,9	5,2	5,1
Frantzia	1,8	1,8	1,8	1,6	8,7	8,4
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,5	2,1	4,2	4,3
Italia	1,2	1,1	1,2	1,4	10,9	10,5
Espania	2,8	2,3	1,6	1,5	—	—
Herbehereak	2,7	2,2	1,6	2,1	—	—

Iturria: Consensus Forecast.